

Herri Aldizkaria
Otamotz

1998ko maiatza 37. alda



**Irizarrekin
politikaz
berriketan**

ESKOLA KIDOLAREN GEHIGARRIA

Udan
ere


Ongi etorri euskarara!

Ongi etorri Urretxu-Zumarragako

Udal Euskaltegira!



ARKO



1998ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

- ESKAINZA:** EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA • **ERRITMOAK:** goizez, egunean 4-5 ordu
• **PREZIOA:** 9.000 pta (4 ordu) • 11.000 pta (5 ordu) • **BEKAK ETA DIRU LAGUNTZAK DITUGU. GALDE EZAZU!**
• 16 urtetik gorakoentzat • **IKASTAROAREN IRAUPENA:** ekainaren 29tik uztailaren 24ra
• **MATRIKULATZEKO EPEA:** ekainaren 9tik 26ra • **BARNETEGIA:** uztailaren 1etik 15era ZERAINEN.

URRETXU-ZUMARRAGAKO UDAL EUSKALTEGIA Labeaga kalea, 40-A • URRETXU • Tel.: 943-72 33 10



Duela 40 urte inguru ateratako argazkia Zumarragako monjen ikastetxe zaharrean. Ezkerretik eskubira: Maite Etxeberria, Itziar Oiarbide, M^a Asun Mesonero, Maite Frances, M^a Asun Andueza, M^a Tere Diaz, M^a Victoria Albisua, Sole Urtaran, M^a Rosario Mendiola.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu.
Tel: 943725775 **koordinatzailea:** Jon Balenziaga **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldua. **Publizitatea:** Asier Zaldua **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.
Inprimategia: GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318
Tirada: 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Iparagirre, 11 URRETXU tel: 722599


MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

BAIMENDUTAKO



Pepe Jeans
LONDON



SALTOKIA

DOSS

Bidezar, 13 ZUMARRAGA



MADARIAGA

Gestoria-Inmobiliaria-asegurua

Labeaga, 27 ☎ eta faxa: 72 55 29
URRETXU



ERAIKUNTZEKO
MATERIALAK

ALMACENES

SANTA BARBARA


Eraikuntzarako era guztietako materialak.
Gres eta azulejotan markarik onenak.

Mugitegi Pol. B, 2 ☎ eta faxa 72 55 16
URRETXU

Larraiots

Barne diseinua

Altzariak eta dekorazio gaiak
Dekorazio proiektuak
Estilodun opariak
Eskaparatismoa



Bidezar, 9 ☎ 72 12 56
ZUMARRAGA

Askagintza, Askatasuna Lantzen

Urtero, udaberria guregana iristen denean Askagintzako lagunok normalean baino lan gehiago izaten dugu. Baloarazio motz bat eginez, hilabete honetan, ekitaldi ezberdinak antolatu ditugu bi herrietan. Hasteko, gure drogomenpekotasunaren prebentzioari helduz gurasoeekin aritu gara bi une ezberdinetan. Honetarako, urte hasieran, inkesta bat pasatu genien ikastetxeen bitartez guraso guztiei harrera ona izan zuelarik. Martxoan, "prebentzioa eta komunikazioa" lemapean hiru hitzaldi eskaini genien 20-25 gurasoei, droga kontsumoak gaur egungo gazterian eta familian duen eragina aztertuz. Informazio argia eskainiz, komunikazioa seme-alabekin landuz eta erabaki hartze prozesuak eta gatazken konponbideak nola aplikatu behar diren ikasiz. Saio hauen arrakasta ikusiaz, maiatzen beste hiru saio egin genituen komunikazio eta autoestima lantzeko asmoarekin. Gurasoen kopurua mantendu egin dugu, nahiz eta aitak, ez diren animatu. Lehenengo zikloa bezala, Izadi Giza Taldeko Txux Congil ezitzaileak dinamizatu ditu hiru saioak giro polit batean, amek, seme-alabekin dituzten komunikazio kezka argituz.

Maiatzean ere 7 eskale taldeko lagunak bisita egin ziguten drogen kontsumoari buruzko abestiek. Futbola ikus-

ten geratu zirenak, ekitaldi zoragarri bat galdu zuten, Barrenkaleko Blusak hain zuzen. Unai Iturriaga, Igor Elortza, Josu Zabala eta besteek drogomenpekotasunari buruzko mezu zuzen bat emateaz gain, zapora on bat utzi ziguten. Maiatzaren kronikarekin jarraituz, kontzertuaren hurrengo egunean, kalera joan ginen mahai baten inguruan firmak eskatuz, narkotrafikoa eta epaileen pasibotasuna salatuz. Sinadura besterik ez genuen eskatzen baina batzuk, pasibotasuna herrian ere badela erakutsi ziguten.

Udaberri kanpaina bukatzeko Etxarrira abiatu ginen herriko kolonia txiki bat Askagintzak antolaturiko Bizirik egunean parte hartzeko. Aldiri Kultur Elkarteke erraldoi konpartsa, soinu-jole, Alboka joleak eta beste aritu ziren. Mahai informatiboak

antzerkiak, pailazoak, musika taldeak, umeentzako joku parkea eta abar izan ziren joan ginenentzako. Eguraldi onaz gozatzeko aukera izan genuen, baina jende gutxi hurbildu zen.

Gaspe Asanbladarekin batera "Askatasuna Lantzen" bideoaren aurkezpena egingo dugu Kultur Etxean, Askagintzaren hamar urteetako lana, helburuak eta abar ezagutzeko aukera izango dugularik. Bideoa ikusi eta gero bakoitzaren eritzia jasoko dugu, guretzako garrantzitsuen pertsona bakoitza-

ren askatasuna eta autodeterminazioa delako.

Askotan ekintzak espero bezala iritzen ez direnean etsipenak hartzen gaitu eta gure buruari hontan zergatik jarraitzen dugun galdetzen diogu. Erantzuna bapatean sortzen da gure barruan eta jarraitzeko animatzen gaitu. Orainarteko sistemak frakasatu egin du. "Drogei ezetz esan" eta antzeko kanpainen atzean dabilzanak ez dira konturatzen (edo beharbada bai) honela ez dutela ezer konponduko sekula santan. Drogak beti egon dira gure artean eta hor jarraituko dute.

Beraz ikusi behar duguna beraiekin bizi eta bakoitzaren askatasuna landu behar dela da, prebentzio on batekin drogen menpekotasunean erori gabe. Hau posible da eta hortan denok lan egin behar dugu, pertsona aske eta arduradunak eraikitzen. Bidean zailtasunekin topatuko gara, batzuk interesatuak gainera, baina aurre egiteko gauza izango gara.

Bukatzeke fenomeno honekin sensibilizaturik dagoen edonori luzatzen diogu aukera gure taldean sartzeko. Uste dugu gure ikuspuntua garbi utzi dugula. Ados baldin bazaude animatu eta ongi etorri.

Urretxu-Zumarragako Askagintza

Uti, non abuti

Herriko edozein biztanleri, Udalak dirulaguntza eman diezaiokete Urretxuko euskaltegitik kanpo euskara ikasten aritzeagatik, matrikularen % 35a hain zuzen, herriko euskaltegian ihardunez gero dirulaguntza jaso ahal izan gabe. Orain arte hala izan da, herritarron artean inongo bereizketa egiten ez zelarik. Baina hemendik aurrera ez da hala izango, herritarron gehiengoa diskriminatu egingo dutelako era mingarrian.

PNVk, PSOE-PSE-EEK eta EAK bat eginik euskara ikasteko prest agertuko liritekeen herriko zinegotzietatik matrikularen kostu osoa ordaintzea erabaki dute.

Euskararen aldeko diskriminazio positiboa egin behar dela pentsatzen dugu, euskaraz dakiten zinegotzi guztiak euskaraz hitz egiten entzun nahi ditugu, ez

dakitenek ikastea nahi dugu, eta honetarako pertsonen izan ditzaketan traba ekonomikoei aurre egiteko laguntzak ematearen alde gaude. Baina zinegotzi ez diren herritarrei % 35a ordaindu, eta zinegotzietatik, han edo hemen ikasi arren, matrikularen % 100a ordaintzearekin ez gaude ados.

Herritarron arteko halako diskriminazio mingarriaren aurrean ixilik ezin gara egon. Herriko asfalto gainean euskara zabaltzearen alde lana egiteko gaude, baina egin dutena eta horrelakoak soberan daudela uste dugu, egin dutena ustelkeria hutsa besterik ez delako. Erabaki hori, edozein pertsonaren kontra doala pentsatzen dugu, herritar guztion eskubide berdinen aldeko balorea majo erasotu delakoan baikaude.

Ilargira igotzeko astronauta izatea kontuan izan behar da, baina euskara ikasten ari den norbaiti matrikularen % 35a edo % 100a ordaindu behar diogun jakiteko, zinegotzia den ala ez den kontuan hartzea gehiengoa baztertzea besterik ez da.

Jon Mikel Irigoras

Jesus Mari Urbegain

Urretxun HBko zinegotziak

TXIKIMOTZ

ESKOLA KIROLAREN VII. GEHIGARRIA

Larunbatean festa

Datorren larunbata hilak 30, goiz partean eskola kirolean parte hartu duzuen guztiok denboraldi amaiera ospatzeko festa izango duzue Antion. Baina eguraldiak laguntzen ez badu festa bera Argixaon izango da. Leku batean zein bestean hainbat ekintza burutzeko aukera izango duzue, adinaren arabera:

- Bizikletarekin froga desberdinak: aldapa gora ibilbideak, oztopo lasterketa, triala,...
- Banakako jokuak: goilara eta arraultzaren jokua, baloiarekin trebetasun jokuak, zaku lasterketa, aulkien jokua,...
- Taldekako jokuak: aitzorraren bila, sokatira, kaskara-jokua, errelebutako lasterketak,...

Eta ondo igaro ondoren merezitako otarteko eta edaria izango duzue nekea arintzeko ekintzetan parte hartuko duzuenok. Eta emaitza onenak lortzen dituzuenok etxera sariren bat eramateko aukera ere izango duzue.

Ondo pasa eta larunbatean izango dugu elkarren berri.



Eguraldi txarra eginez gero festa Argixaon ospatuko da.



Festan ondo pasatzeko aukera ugari izango duzue.

KIROL EMAITZAK

BENJAMIN MAILA

ESKUBALOIA
(98-5-23)

Larunbat goizean La Salle ikastetxean jokaturako partiduak.

La Salle A - 0
Gainzuri A - 4

L. Ama A - 1
L. Ama B - 1

Zelai Aristi - 0
Haztegi D - 1

La Salle B - 1
Gainzuri B - 1

L. Ama D - 0
D. Agirre B - 3

Haztegi C - 3
La Salle D - 1

L. Ama C - 0
L. Ama E - 1

ALEBIN MAILA

BEISBOLA MUTILAK
(98-5-23)

Larunbat goizean Ispilla polikiroldegian jokaturako partiduak.

L. Ama A - 19
La Salle A - 18

Haztegi B - 12
L. Ama D - 17

L. Ama B - 7
La Salle B - 16

L. Ama C - 11
La salle C - 8

D. Agirre B - 4
Zelai Aristi - 20

Haztegi E (Partidu hau ez zen
D. Agirre A jokatu.)

Gainzuri A - atsedena


ALEBIN MAILA

BEISBOLA NESKAK
(98-5-23)

Larunbat goizean Ispilla polikiroldegian jokaturako partiduak.

La Salle B+A - 9
Haztegi A - 24

L. Ama A - 8
Haztegi C - 18



KIROL EMAITZAK (98-5-23)

INFANTIL MAILA

SASKIBALOIA MUTILAK (98-5-23)




Larunbat goizean Aldiri poli-kiroldegia jokaturako partiduak

Olazabal B - 59
Iparragirre A - 9

Haztegi B - 15
Iparragirre B - 50

SASKIBALOIA NESKAK (98-5-23)



Olazabal A - 13
L. Ama B - 24

La Salle C - 63
Iparragirre A - 18



Urretxu Zumarragako pilota eskolak

Herri arteko pilota txapelketa jokatzen ari den garai honetan, eta nahiz eta gure bi herriak bigarren kanporaketan kaleratuak izan, gure herrietan pilotaren etorkizuna nolakoa den jakiteko asmoz, bi herrietako pilota arduradunengana jo dugu, Miguel Lasa eta Alejandro Albi-suarengana hain zuzen ere.

Urretxuko pilota eskola

Aurretik pilotan irakasten ibiltzen zirenak utzi zutenean, pilotaren afizioa herrian galdu ez zedin, Miguel Lasak beste lagun batzuekin batera hartu zuen ardura. Pilota gazteentzako kirol polita dela ikusi zuten eta aldi berean gazte hauek lagun asko egiteko aukera izango zutela. 3-4 lagun dabilta irakasten, gazte kopuruak garaiaren arabera gora behera handiak izaten ditu. Gabonak igaro ondoren jende ugari hurbiltzen da frontoira, baina eguraldi onarekin jendea gutxitzen hasten da. Hurrengo urterako hau gutzia ondo lotzeko asmoa dute. Kurtso bat ireki nahi dute, kuota bat jarritz seriotasun handiagoa emateko asmoarekin, eta kuotekin lortutako diruarekin pilotan aritzeko materiala erosiko dute.

Txikiak astelehen eta asteazken arratsaldeetan entrenatzen dute, eta 12 urtetik gorakoekin, berriz, astearte eta ostegunetan. Partiduak asteburuetan izaten dituzte, eta aipatzekoa da aurten, 3 final jokatutuztela, Gipuzkoako diputazio txapelketan.

Entrenamenduetan bi eskuekin jokatzen erakusten diete, batez ere esku txarra



deitzen denarekin.

Gaur egun telebistaren eraginez pilotak izan duen gorakada, onuragarria izango dela dio pilota munduarentzat. Baina argi duela enpresarioak enpresario direla eta hau gutzia beraientzat egiten dutela. Enpresen artean dagoen norgehiagoka horren ondorioz, pilotari gazteegiak igorazten dituzte profesionaletara. Eta hauek oraindik ez daude prestatuta maila honetan txukun aritzeko. Arazo honi aurre egiteko federazioak lan gehiago egin beharko lukeela dio Miguel Lasak.

Etorkizunari dagokionez gauzak serioago hartzeko asmoa dute, 6-7 urteko gazteekin hasi eta jarraipena egingo diete urtetik urtera. Modu honetan eskola nahiko serioa lortzeko nahia dute urte batzuetan.

Zumarragako pilota eskola

Zumarragan pilota bizirik mantentzea da duten asmoa, eta aldi berean gazteak

entrenatu eta pertsona moduan formatzen joan.

3 lagun ibiltzen dira gazteei irakusten, bi monitore gisa eta hirugarrena objetore moduan klub-ari laguntzen ari da. Astean 4 aldiz entrenatzen dute, alde batetik entrenamendu teknikoak, non pilotan nola jokatu behar den erakusten dieten, eta beste aldetik alor fisikoa lantzen dute.

Azken urteetan gero eta jende gutxiago hurbiltzen da pilota mundura, beherakada nabarmenena azken 2-3 urtetan eman da. Jendeak pilotaren gogortasuna dela medio kirol hau uzten joan da, beste kirol batzuen mesedetan.

Epe motzera telebistaren eragina ontzat jo daiteke, baina ezin da jakin zein eragin izango duen epe luzera.


Alejandroren ustetan, enpresei dagokionez positibotzat jo daiteke enpresa bat baino gehiago egotea, baina hauek beraien artean sortu duten liskarra ez da onuragarria. Jende gazte asko igo baitute profesionaletara, eta hau ez da ona ez beraientzat ezta ikusleentzat ere. Profesionaletara igotako gazte askok ez dute mailarik kategori honetan aritzeko.

Enpresetan egoismo handia dago ekonomia aldetik, nahiz eta beraiek hori azaldu nahi ez, pilotaren alde ezer gutxi egiten dute.

Etorkizunari begira Zumarragan aurrera jarraitzeko asmoa dute, jende gehiago azalduko balitz hobe izango litzateke, eta modu honetan Zumarragan pilota giroa mantentzea lortuko litzateke.



Zer dakizu euroari buruz?



Tomas Mediavilla

Pixka bat kostatuko zaigu ohitzea. Nire ustez aldaketa zaila egingo zaigu eta nahasturik ibiliko gara pezeta eta Euroekin.



Joel Reyes

Aldaketa zaila egingo da, ni kubarra naiz eta ez dakit kanpoko txanpona pezeta edo Eurotan aldatzea komeniko zaigun.



Laura Otxoa

Nahiko nazkagarria dela iruditzen zait. Gauzak zailtzeko besterik ez du balioko. Pezeta eta Euroak nahasteari...ez deritzot ondo.



Gorane Domingez

Mobida handia izango dela uste dut. Nahiago nuke orain arte bezala jarraitzea.



Mari Carmen Colado

Ez dakit gauza handirik baina dena den, tontakeria bat iruditzen zait. Hasieran nahaste handia egongo da aldaketara ohitu arte.



J.M. Vahamonde

Helduko dela eta jasan beharko dugula uste dut. Denbora pasatu ahala, ohitu beharra egongo da, inposaturiko guztiarekin bezala.

BIONA
AROTEGIA
Altzariak neurrira
☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa fundazioa
fundación
.....

LIBURUDENDA
GANBARA
Labeaga, 52 ☎ eta Faxa: 72 50 45
20700 URRETXU

Lanbena
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros
Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Jose Julian Irizar

“Alderdi bat bizirik egoteko ona da kontraesanak egotea”



Politikan unerik gozoena lehenengo aldiz alkate izendatu zutenean bizi izan zuen Irizarrek.

Jose Julian Irizar Gabirian jaio zen duela 43 urte. Ekonomilaria izaki, Bilboko bankuan eta Kutxan egin zuen lan politikagintzan sartu aurretik. 1987tik 1995era Zumarragako alkate izan zen. 1991an, Gipuzkoako Batzar Nagusietako kide izendatu zuten eta 1995ean berriz ere izendatu zuten, 99ra arte batzarkidea izango da. Eusko Alkartasunako Gipuzkoako presidente 91tik 97ko azarorarte izan zen, eta Errepide eta garraioetako Foru diputatu, 1995tik, 1998ko martxoak 23rarte. Hamar egun lehenago jakin zen, legegaldia amaitu aurretik kargua utzi zuela dimisioa aurkeztuz. Bi hilabete pasatu direnean, hotzean, honetaz eta bestelako politika kontuetaz hitz egin dugu Irizarrekin.

Errepideetako diputatu izan zineneko garaiaz zer balorapen egiten duzu?

Oso balorazio baikorra, hor ezagutzen baita pixka bat goi mailako politika. Oso garrantzitsua den sail batean aritu naiz lanean, ia 300 lagun eta 17 mila milioiko aurrekontua duena.

Etorkizunari begira, Gipuzkoako errepideak nondik nora joango diren jakiten da.

Balorazioa baikorra da.

Azkenengo gertaerak, ordea, nahasiak izan dira. EAK kargua uztera behartu, edo zuk utzi duzu

kargua? Zergatik?

Bai. Desadostasunak aurretik zetozen. EAKo exekutibak esan didan bezala askotan, ez dut alderdi barneko politika jarraitu, nire kasa ibiltzea gustatzen zitzaidala esan zidan eta azkenaldian, desadostasun dexente ari ziren irteten EAKo exekutibarekin eta azkenean, kargua uztea erabaki dut. Ez da bidesariena bakarrik izan, etorkizunari begira zein bideri eman lehentasuna, posible zen bide horiek momentuan egitea... Horretarako zer politika egin behar den zehaztu behar da. Nik badakit aurreneko urratsak eta sustoak nik eman dizkiedala biztanleei, bidesariak jarri behar direla esanez eta abar. Onartu beharra dut alderdi mailan ez zegoela hori erabakita eta ni aurreratu egin naizela. Beste gauza batzuetan ere agertu ziren ezberdintasunak eta honela, gure hartu-eman

etenda ez baina tirabira asko zegoenez uztea erabaki dut denontzako lasaitasuna iritsi dadin.

Zer zen zuk defendatzen zenuena?

Pixka bat nik defendatzen nuena, ahalmen handiko bide guztietan bidesari bigunak jartzea zen. Euskal Herrian beharrezkoa da ahalmen handiko bidea amaitzea, Europa eta Afrikarekin (Peninsula Iberika) dugun konexioa mantentzea beharrezkoa delako. Sare hori amaitzeko bide garrantzitsu batzuk egin beharra dago. Honetarako, Euskal Herriak duen erliebea kontuan izanik, diru asko behar da. Sare horretan Beasain-Durango ere badago eta badirudi, oraingo diputatuak bide hau atzeratzeko asmoa duela. Niri hau, hemengo batzarkide izanda, oso kaltegarria iruditzen zait. Aipatutako sarea obrak atzeratuz egin daiteke baina honela, gainontzeko lurraldeen atzetik ibiliko ginatke. Nire ustez, obra hauek aurreratzen hasi behar dugu, guztiok ahalgina eginez eta bidesari minimo batzuk ordaindiz. Demagogia eginez dena egin eta dena doan izango dela esan daiteke baina nik hori ez dut sinisten eta ez dut gustuko. Horregatik sortu da zalaparta.

Errepideetako diputatu kargua utzi aurretik, ordea, EAKo Gipuzkoako presidentzia utzi zenuen denbora falta argudiatuz. Hori izan al zen kargua uztera bultzatu zintuen argudio bakarra?

Beno, askotan, nik egindako adierazpen politikoei erantzuna jaso dute alderdi barnean. Nire ustez alderdi barnean, estrategikoki, iritzi ezberdinak egotea normala da. Biolentzia arloan nik eginiko adierazpenak askotan ez dira gustokoak izan ez eta abertzaleen munduak jorratu behar dituenari buruzko adierazpenak ere.

EAKo exekutiba gustura al dago zuk egindako lanarekin?

Gustura esan dezaket EAKo presidentek, berak, eskerrak eman zizkidalako nik egindako lana onartuz. Gure diferentziak ere izan ditugula onartu zuen baina nire

ustez, alderdi bat bizirik egoteko ona da kontraesanak egotea.

“Lehendakaritzarako hauteskundeei begira, EAk, aukera ederra galdu du berriztapena egiteko”

Alderdi barnean norekin dituzu hartu-eman hobek, Garaikoetxearekin ala Oliverirekin?

Garaikoetxea alderdiko lehendakaria da eta nire errespeto guztia merezi du. Oliveri berriz, idazkari nagusia da, errespeto izugarria diot baina horrez gain, lagun handia da eta gainera, politikoki jarraitu beharreko estrategian, adostasun puntu gehiago ditugu. **Jeltzaleek, popular eta sozialistek behinik-behin, lehendakaritzarako hautagai berria aukeratu dute. Zure ustez, Karlos Garaikoetxea da EAko hautagai egokiena edo beste aurpegi bat aurkeztea komeni zen.**

Berriztapen bat egiteko aukera ederra galdu dugu nire ustez. Berriztapena, behar beharrezkoa da eta berriztapen lan horretan, Garaikoetxeak lagundu beharko luke.

Hauteskunde hauetan aukera ona zegoela pentsatzen nuen berriztapenarekin hasteko baina zoritxarrez ez da hala izan.

Erabat beharrezkoa eta derigorrezkoa da berriztapena eta etorriko da.

Nor izan zitekeen zure ustez lehendakaritzarako hautagai egokiena?

Beno orain esatea zaila da baina Patxi Ormazabal, Jasone Iraragorri, Jon Goinetxe... jende asko dago.

Zer duzu nahiago abertzaleen arteko batasuna ala Ajuria Eneako mahaiaren batasuna?

Aurrena abertzaleen batasuna eta behin hau lortuta, nork daki, agian Ajuria Eneako mahaiak ez luke beharrik egingo. Mahai honek izugarritzko zuloa du. Hasteko, abertzale guztiak ez gaude han, ez gara ezertan ados jartzen eta gainera, partidu zentralistek izugarritzko indarra ematen zaie.

Zer bide urratuz lortu daiteke bakea Euskal Herrian?

Askotan egin didate galdera hau eta erantzuna zaila da. Elkarrizketa defendatzen dut baina elkarrizketa egiterako orduan nortzuk parte hartu, zertarako, ze markoren barruan eta zer konpromezu hartzeko biltzen garen garbi izan behar dugu. Askotan formulak botatzen hasten gara baina formula horien konposaketak ez ditugu lotzen aurrena. Abertzaleen artean akordio minimo ba-tzuk beharrezkoak dira mahai baten inguru-an biltzeko. Bigarrenik, abertzaleen arteko akordio horren ordezkari bat behar da, gobernua, lehendakaria edo beste norbait eta azkenik, beste aldeko bat behar da MLNVkoa edo akordio horri baiezkota emango diona. Askotan, Gerry Adams bat behar dela esaten da eta baliteke egia izatea. Behin adostasun bat lortutakoan, marko bat jarri eta horrekin, Madrileko gobernuarengana jo da egin behar dena. Irudi eta pertsonak alde batera utzi eta akordioak lortu behar dira.

Herrira etorri, zortzi urtetan Zumarragako alkate izan zinen. Nola ikusten duzu orain Zumarraga?

Ondo. Bitxikeria bat kontatuko dizut. Bigarren legealdia amaitu nuenean, sozialistek, Udala diru gabe utzi nuela esan zidaten. Eta bai, neurri batean egia da. Azkeneko urteak 92,93 eta 94. urtea gogorak izan ziren baina zortzi urte horietan



Jose Julian Irizar Otamotzeko erredakzioan izan zen.



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F 20700 ☎ 725682
URRET XU 722292



MAPFRE


Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00



BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak


Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura

Labeaga, 31
20700 URRET XU ☎ 72 27 80

Eskulanetarako eskaioia, pintura edo besterik behar baduzu zatorz hona



ARTVRO

Ipeñarrieta, 4 ☎ 72 14 20
URRET XU



Momentuz ez du politikara itzultzeko asmorik.

gauza asko eta beharrezkoak zirenak egin ziren. Horrek aurre-
ra begira, bi edo hiru legealdi
lasai ekarriko zituela esan nuen.
Beno, konturatzen bazara, orain,
errekako saneamentua egiten ari
dira baina hori guk utzi genuen
martxan. Honez gain, apenas
dago obra berririk. Zergatik?
Azpiegitura gehienak zortzi urte
horietan egin zirelako. Orain,
diru gehiago bidali daiteke zer-
bitzu sozialera, euskarara eta ho-
nelako departamentuetara. Zortzi
urte horietan, nik eta, udale-
txean nirekin batera ibili ziren
guztiek esfortzu handia egin
genuen eta orain Zumarraga
nahiko ondo dago, gustura bizi-
tzeko lain behintzat bai.

**Alkatetzarako hauteskundee-
tara, Zumarraga eta
Urretxuko EA eta EAJ elka-
rrekin aurkeztu beharko al
lirateke?**

Galdera hau ez da erraza eran-
tzuten. Bakoitzak sendotutako
nortasuna du baina gai batzue-
tan, mamizkoetan, gure arteko
laguntza indartu eta finkatu egin
beharko genuke. Zumarragan
garbi dago, alderdi sozialista
dago alkatetzan eta uste dut es-
fortzu txiki bat egitea merezi du-
ela berriro ere alkate abertzalea
jartzeko. Ni ez naiz egongo
erronka horretan baina animatu
egiten ditut. Urretxun zalantza-
rik ez dut berriz ere alkate aber-
tzalea izango dugula.

**Eta Euskal Herrian posible al
da elkarketa hau ematea?**

Momentu honetan zailagoa da
baina garai hobek eta etorriko dire-
neko konfiantza itsua du. Ez
dakit lau, zortzi edo hamabi urte

beharko diren baina etorriko da
Beharrezkoa da, batik bat, azke-
naldian dagoen egoera politikoa
kontuan hartuta.

**Zeintzuk izan dira politika-
gintzan izandako une gozo eta
gazienak?**

Gaziena, 1991an, EA alderdia,
EAJ eta sozialisten arteko pakto-
aren ondorioz Diputaziotik,
Donostiako Udalaletxetik eta ia
leku guztietatik kanpo geratu
ginenean. Ez kanpora gelditzea-
gatik baizik eta abertzaleen arte-
an jorratu beharreko bide horretan
atzera pausu izugarria eman
zelako eta momentu gozoena,
Zumarragako alkate lehendabizi-
koz irten nintzenean.

**Aurrerantzean politikagin-
tzan jarraitzeko asmoa al
duzu?**

Ez, eskualde honetako batzarki-
de bezala legealdia amaituko dut
baina momentuz behintzat, ez
dago nire helburuen artean poli-
tikara itzultzea. 11 urte egin
ditut eta zaila eta gogorra da
politikara betirako lotzea.

Abertzaleen arteko harremana
hobetzeko merezi du politikara
buelatzea baina bestela, orain,
denboraldi batean ahaztu egin
nahi dut politika. Kutxara,
lehengo lanera itzuliko naiz.

Nekagarria da politikagintza?

Bai, nekagarria da. Momentu
onak baditu baina askotan, inbi-
dia eta maltzurkeria gehiegi
dago politikan eta gutxiena pent-
satzen duzunean, uste duzun la-
gunik onenak, izugarritzko faena
egiten dizu. Egun guztian erne
ibili behar da eta horrek azkene-
an nekatu eta erre egiten du.

Honela definitu ditu Irizarrek esaldi batean ondorengo politikoak



Arg: Egunkaria

Karlos Garaikoetxea

Euskal Herriko politika
modernoa, gobernuko
lider onena.



Arg: Egunkaria

Inaxio Oliveri

Politiko zintzo bat, langilea
eta benetako laguna.



Arg: Egunkaria

J.A. Ardanza

Gutxi ezagutu dut baina
tokatu zaitenetan jatorra
izan da nirekin.



J.J. Imaz


Udalaletxean elkarrekin
egon ginenean gazteegia
zen, orain helduagoa da.



Arg: Aguado

Antxon Jaime

Injienero on bat.



Roman Sudupe

Nere lehialtasuna bene-
tako laguntza batekin
eskertu du.



Anton Arbulu

Denbora gehiegi dara-
ma politikan.



Pello Gonzalez

Izugarritzko etorkizuna
duen politikoa.

Liburuak protagonista

Liburuaren eguna apirilaren 23an izan bazen ere, maitzean zehar liburuen inguruko albiste gehiago izan ditugu Urretxu eta Zuma-rragan. Alde batetik, maiatzaren 8tik 17ra bitartean, **liburuaren III. feria** burutu da Kaleba-rran Areizaga enparantzan. Bi udalak eta

Euskadiko liburuaren ganbara izan dira antolatzaileak eta aurrekontua, milioi eta erdikoa izan da. Aurtengoan gainera, aukerako liburuez gain, liburu eta diska berriak ere saldu dira estreinekoz feria honetan. **Bernardo Atxaga, Pako Aristi, Antonio Gala, Alberto Vazquez Figeroa** eta beste-lako idazleen lan berriak ikusi ahal izan ditugu.



Zabaltzen argitaletxe ko liburusaltzaileak azokan

Bestalde, apirilaren 30ean inauguratu ondoren, maiatzaren 7an zabaldu zen irakurle ororentzat **Urretxuko liburutegia egoitza berrian**. Egoitza berri honek 200 metro karratu ditu eta 60bat pertsonentzako tokia du. Sarreran kaleratutako azken liburuak daude ikusgai eta behin barruan gaudela, liburutegia hiru zatitan banatua

dagoela ikus dezakegu.

Gaztetxoentzako gunea, helduentzako gunea eta egunkari eta bestelako aldizkariak irakurtzeko hemeroteca. Honez gain, fotokopiagailu eta ordenagailua ere badaude, epe motzean, **Koldo Mitxelena** liburutegiarekin konektatuko den ordenagailua hain zuzen. Aurkezpen ekitaldian beste **Koruko Aizarna**, Gipuzkoako Foru diputatua izan zen. Urretxuko liburutegiak ia 12 mila liburu eta **2.090 bazkide** ditu. 1997. urtean zehar 6.400 pertsonak bisitatu zuten liburutegia eta

maileguan utzitako liburuak, 6500 izan ziren. Ea aurten zenbaki horiek hobetzen diren.



Koruko Aizarna etorri zen liburutegiaren aurkezpenera

Diskogintzan, berriz, **Oskorri, Etxakit** eta **Latzenen** azken lanak. Zabaltzen argitaletxe ko liburu saltzaileek, liburu azokaren balorapena egiteko orduan gustura daudela adierazi diote **OTAMOTZI**. Iaz baino jende gehiago ibili omen da azokan baina hala ere, salmentei dagokienez, iaz baino gutxiago saldu omen da. Liburu berriak ekartzaren ideia ongi ikusi dute Zabaltzenekoek. Liburuez gain, euskal abestien kontzertua, jokuak, Kaskazuri eta Txatxilipurdi eta poesia emanaldiak izan dira.



Jende ugari bildu zen azokaren inguruan

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 72 02 15 - Faxes: 72 52 91
S. Esnaola, 2 ZUMARRAGA



alejandro albisua
kirol gaiak

Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Eluska Zabalo: "Arte kontuan ez dugu sekula nahasi behar atsegin duguna eta ona dena"

Eluska Zabalo Donostian jaio eta egun Arrasaten bizi den pintore gaztea da. 16 urte besterik ez dituen arren, bakarkako zenbait erakusketa egin eta gazte zein heldu mailako sari ugari irabazi ditu. Egun Bingen De Pedroren eta Juan Ramon Perezen tailerretan ari da margotzen. Maiatzaren 8tik 17ra bere margoak Itarte etxean ikusgai izan ditugula eta, berarekin hitz egitera joan gara.

Nondik datorkizu pinturarako zaletasun hori?

Ba, egia esan, etxean inork ez du zaletasun hau, baina ni txikitatik hasi nintzen etxeko ormak margotzen. Ikasten aritu naiz eta etorkizunean batxilergo artistikoa eta Arte Ederrak ere ikasteko asmoa dut. Madrilako fakultatean oso "akademizistak" dira eta Bilbon guztiz kontrakoa. Nik tarteko bat aurkitu nahi dut.

-Zer estilo jarraitzen duzu? Zein pintore dituzu gustuko?

Beno, izugarri atsegin eta jarraitzen dudana Cezanne da. Nire pintura konstruktibismoaren barnean kokatuko nuke

eta bera izan zen joera honen aitzindaria. Bestalde, Paul Klee ere asko gustatzen zait.

-Ikusten dugunez, koadro guztietan paisaiak agertzen dira.

Bai, izan ere, hemen erakusgai ditudan koadro guztiak lehiaketetan margotutakoak dira. Hauetan lehiaketa burutzen den herriko leku bat margotu beharra duzu. Estudioan beste koadro batzuk kopiatu ohi ditut neure teknika hobetzeko.

-Zer da zure koadroekin adierazi nahi duzuna?


Azken finean, edozein sormen lan bere egilearen adierazlea da. Bakoitzak bere izakeraren arabera egiten ditu gauzak. Beste izakera bat izango banu, beste modu batera margotuko nuke.

-Nola ikusten duzu pinturaren mundua?

Pintore oso onak daudela iruditzen zait, baina ezjakin xamarrek gara eta ez dakigu gozatzen. Pixkanaka ikasten joan beharko genuke. Bestalde, ez dugu sekula nahastu behar atsegin duguna eta ona dena.

-Guggenheim museoa ba al du baliorik ezjakintasun honetatik ateratzen laguntzeko?

Zertxobait lagunduko du, baina arteari baino gehiago turismoari begira egina dago. Hobe izango zatekeen honetarako erabilitako diru atal bat arte eskolak zabaltzeko erabili izan balitz. Honela batxilergo artistikoa egiteko ez nukeen Iruñeara joan beharrik izango.



Eluska Zabalo Itarte Etxean izan da

Berriak, La Salle-Legazpi ikastetxeko aldizkaria

Lehenago ere argitaratu zuten beste aldizkari bat, Lea izenekoa hain zuzen ere baina oraingo honetan, gogotsu ekin diote BERRIAK aldizkari honi. Ikastetxean, prentsa tailerra irakasgai bezala jarri zutenean, aldizkaria kaleratzeko erronkari heldu zioten eta hainbat lan egin ondoren, lehen alea argitaratu dute. La Salle-San Jose ikastetxea estreinatu dutenez, bertako gertakizunak, gora-beherak, berriak eta abar bilduko dituen aldizkaria osatu dute. BERRIAKeko egileak, DBH-3. mailako 20 bat lagun dira baina gurasoen parte-hartzea ere eskertuko luketela esan digute. Helburu nagusiak, lanak duen balore pedagogikoaz gain, eskolako berriak eta ikasleak eginiko lanak ezagutaraztea da. Horregatik 6. mailatik gorako ikasleen artean banatuko dute eta ikas saioetan erabiliko dute material moduan.

Ikasturte honetan gutxienez bi ale

Dagoeneko lehen alea kaleratu dute.

Editoriala, kirolak, elkarrizketak, eskolako ekintza ezberdinak, musika, berrien taula eta bestelako edukiak argitaratu dituzte lehen ale horretan eta orain, bigarrena prestatzen ari dira burubelarri. Ikasturte honetan gutxienez bi ale kaleratuko dituzte. Momentuz, 25 orrialde inguruko aldizkaria egin dute baina poliki-poliki, lehen urratsak ziarri eman ondoren, sendotzen joateko asmoa dute, idazlan, erreportai, komiki, bestelako artikulu eta gai buruz idatziz.

Interes handia dute herriko eta herrikoak ez diren beste ikastetxeetako aldiz-

kariekin harremanetan jartzeko. Horretarako, eskolarekin harremanetan jarri zaitezke edo ta bestela, interneteko helbidea erabili; ((leglasalleiz (a) planalfa.es). La Salle Legazpi ikastetxea elebiduna izanik, BERRIAK aldizkaria ere elebiduna da.



DBH-3. mailako ikasle hauek egiten dute BERRIAK aldizkaria



Zintzo Mintzoren eskutik hizkuntz ihardunaldiak

Zintzo Mintzoko kultura taldeak hizkuntza ihardunaldiak antolatu ditu maiatzaren zehar. Maiatzaren 7an Juan Garzia, 13an Pello Esnal eta 20an Xabier Mendiguren aritu dira bakoitzak bi orduko saioa eginez. Orain artean ikastaroak burutu izan dituzte baina aurtengoan, ikastaroak guztiz baztertu gabe, ihardunaldiak antolatzea erabaki zuten kultura taldekoek. Jendearen erantzuna ona izan da baina hala ere, aurreko urteetan baino jende gutxiago aritu omen da. Zintzo Mintzoko kultura taldeak balorazio ona egin du, balioko ihardunaldiak izan direla argudiatuz eta aurrerantzean ere bide bere-tik jarraitzeko asmoa dute.



Pagoeta antzokian sutea

Guztiz garbi ez dauden arrazoen ondorioz, maiatzaren 9an, larunbatean, Pagoeta antzokiak sua hartu zuen. Iluntzeko 8rak aldera hasi omen zen sua eta zorionez, indarra hartu aurretik, ertzaintza eta suhiltzaileak heldu eta itzali egin zuten. Argazkian, eskenatokiaren egoera ikus daiteke.




Zumarraga zure esku gida argitaratu da

Aurreko alean Hiru Tenpluen Ibilbidearen berri ematen bagenuen, oraingo honetan, **Zumarraga zure esku** izeneko gidaren berri eman behar dugu. Gida honen helburu nagusia Zumarragaren berri ematea da, eta bide batez, Hiru Tenpluen Ibilbidea egiten duten turistak, herrira ere erakartzea.


Zumarragako gune turistikoko eta interesgarrienak ageri dira argazkietan eta hauekin batera azalpenak emateko balio duten testu batzuk. Gidaren **egileak B&N** publizitate agentziako Bittor Enrike eta Nerea Rodrigez herritarrak izan dira. Azala berriz, Zumarragako Arte Ederretako eskolan dabilen **Graciela Muñozek** egin du. Orotara bost orrialde ditu gidak eta **10.000 ale** kaleratu dituzte, 5000 euskaraz eta beste hainbeste erdaraz. Udaletxean, Antion, eta hainbat taberna, jatetxe eta dendatan daude eskuragarri.

Herritarrak futboleko 2.B mailan



Mitxel Badiola

Adina: 27
Herria: Zumarraga
Taldea: Elgoibar
2.taldea: Urola
Jokalari bat: Schuster
Entrenatzaile bat: Kike Ormaetxea
Golik onena: Maradonak 86ko mundialean sartutakoa.
Mundialerako faborittoa: Brasil



Migel De Luz

Adina: 25
Herria: Zumarraga
Taldea: Barakaldo
2.taldea: Urola
Jokalari bat: Aranzabal
Entrenatzaile bat: Periko Alonso
Golik onena: Ronaldok Compostelari sartutakoa
Mundialerako faborittoa: Brasil



Aitor Esnal

Adina: 25
Herria: Zumarraga
Taldea: Barakaldo
2.taldea: Urola
Jokalari bat: Weah
Entrenatzaile bat: Camacho
Golik onena: Maradonak 86ko mundialean sartutakoa
Mundialerako faborittoa: Brasil

Mitxel Badiola, Migel De Luz eta Aitor Esnal futboleko 2.B mailan ari diren zumarragarriak dira. Badiolak, Elgoibarren jokatu du denboraldi honetan eta De Luzek eta Esnalek, berriz, Barakaldon. Azken bi hauek gainera, egun, 2.A mailako igoera fasea jokatzen ari dira. Urolan hasi ziren baloiari lehen ostikoak ematen eta herriko taldean ez ezik, De Luz eta Badiola, Beasainen ibiliak dira.

Nolakoa izan da zuen esperientzia 2.B mailan?

Badiola: Oso ona. Futboleko jokatzeko hasi nintzenetik aurtetik ikasi dut benetan futboleko jokatzeko.

De Luz: Ilusio handia nuen baina gauzak ez dira nahi bezala joan. Gehiago jokatzea espero nuen baina tira, orain play off-ean gaude eta ez da esperantza galdu behar.

Esنال: Zoragarria. Nahiz eta minutu gutxi jokatu balorapena bikaina da. Futbol arloan gauza asko ikasi ditut aurtetik.

Salto handia al dago 3. mailatik 2.B mailara?

Ikaragarria. Beasainen (Badiola) ez nuen

asko jokatu eta aurtetik konturatu naiz maila honen benetako gogortasunaz. Talde guztiek maila ona erakutsi dute 2.B mailan. Hala da bai. (De Luz) Maila altua da eta asko eskatzen duena gainera, batik bat, fisikoki oso ongi egon beharra dago. Jokalari batzuk ere kalitate handikoak dira. Erritmo eta kalitate aldetik dago nire ustez (Esnal) saltoa, bestelakoan, ez dago horrenbesteko saltorik. Entrenamendu asko egiten ditugu, hasieran asteko 7 egunetan entrenatzen genuen, gero 6, gero 5 eta orain asteen 4 bider. Entrenamenduetan lehiatuz gero 2.B mailari neurria har lekioko.

Esnal eta De Luzek, play off-ari begira, nola ikusten duzue taldea?

Helburua igotzea da eta momentuz ongi hasi dugu. Tentsio izugarria izaten da partidu hauetan. Alfonso Del Barrio entrenatzaileak, jokalariek duten guztia ematea nahi izaten du eta igoera faseko lehen partidua hasi aurretik, aldageletan geundela, Bouzo jokalaria motibatzen hasi eta azkenean bultzaka amaitu zuten. Entrenatzaile gogorra da eta ikaragarri motibatzen zaitu. Kontrako taldeko jokalariren bat baloiarekin eserlekutik gertu badago, Alfonsok, jokalaririk bat min hartu-

ta dagoela eta baloia kanpora botatzeko esaten dio. Jokalariak baloia kanpora botatzen duenean, inor ez dagoela min hartuta konturatzen da eta orduan sekulako istiluak izaten ditugu. Alfonsok, futbola horrelakoxea dela esaten du.

Hurrengo denboraldiari begira zer asmo duzue?

Badiola: Elgoibarren jarraitzea nahiko nuke batik bat, aurtetik ez dudalako nahi bezain ongi jokatu. Teknikoki gaizki ibili naiz eta ez nuke utzi nahi oroitzapen kaxkar hau elgoibartarren artean. Oraindik, ordea, ez didate kontratua berritzeko eskaintzarik egin.

De Luz: Beste urtebeterako kontratua dut Barakaldorekin eta momentuz behintzat datorren denboraldian han jarraitzea da.

Esnal: Momentuz ez didate kontratua berritzeko eskaintzarik egin, play off-a nola bukatzen dugun ikusi beharra dago. Jarraitzeko prest nago eta bestela Urola edo beste talde batera joateko ere prest nengoke.

Bizi al daiteke 2.B mailan futbolarik ematen duenarekin?

Bai. Gure taldean (Esnal, De Luz) badira

jokalaria batzuk futboletik bizi direnak. Hegoaldeko taldeetan Malagak adibidez, 800 milioiko aurrekontua du, hortik atera kontuak. Elgoibarren (Badiola) inor ez da bizi futbolaren kontura baina Torrelavegan badakit jokalaria batzuek 7 milioiko fitxa dutela urtean.

Futbolistak pribilegiatuak al zarete?

Gu ez horrenbeste baina 1.go mailan jokatzen dutenak bai. Bizitzarik onena (De Luz) futbolariarena da. Hala ere, (Esnal) jendeak uste duen bezain pribilegiatuak ez gara. Barakaldon jarraituz gero, 15 eguneko oporrak izango ditugu soilik, hala ere, bestela bai, dirua erraz irabazten da.

Zer izan da zuentzat Urola?

Futbolean 2.B mailara iritsi bagara Urolari esker izan da. Hemen hasi ginen futbolean eta oroitzen oso onak ditugu. Urolaren egungo egoeraz kezkatuta gaude gainera.

Nola ikusten duzue Alberto Alejandro herritarra Errealean? Iritsiko al da lehenengo taldeko jokalaria izatera?

30 gol egin ditu aurten (De Luz) eta konfidantza handia du bere buruarengan. Errealaren planteamendua ez da ona izan. Real B taldearekin 3. mailan jokatu behar luke mutil honek amaitu berri den denboraldi honetan eta ez jubenilekin. Gainera jubenilekin txapeldun geratu den jokalaria guztien artetik, klausula eta kontratu profesionala ez duen jokalaria bakanetarikoa dela uste dut. Nire ustez, (Badiola) Errealak konfidantza ematen badio, lehenengo taldeko jokalaria izatera iritsi daiteke, gainontzekoan zaila da. Momentuz ondo doa, (Esnal) baina gauza askok dute zerikusia. Behar den momentuan destakatu, entrenatzailearen gustukoa izan...

Zer iruditzen zaizue 1.go eta 2. A mailan euskal taldeek eginiko denboraldia?

Oso ona. Osasuna falta da pixka bat piztea

baino gainontzekoak oso ongi ibili dira. Euskal jokalariek maila ona erakutsi dute, ez bakarrik euskal taldeetan, baita beste taldeetan ere, Ivan Campo eta Olaizolak Mallorcan...

Futbol gehiegi ematen al da telebistan?

Bai. Neurri batean ongi dago baina gehiegi ez da komeni. Egia da futbola ikusiz ere asko ikasten dela baina partidu gehiegi ematen dituzte. Orain gainera, Canal Satelite Digitalen astero ikus daitezke partiduak eta horrek, min handia ematen die errejional, preferente, 3. maila eta 2. mailako taldeei, jendea ez baita futbol zelaira herriko taldea ikustera joaten.

Erreala eta Athletica ate joka etorriz gero, nora joango zinatekete?

Errealekoak gara baina nire ustez (Esnal) futbolaren kontura bizi nahi baduzu, lanbide guztietan gertatzen den bezala, ondoen ordaintzen den lekura joan beharra duzu. Hala ere, (Badiola) Errealak emandako diruarekin ongi bizi daiteke. Nahiz eta diru eskaintza bajuagoa izan, herrian zaude, Gipuzkoan, eta zaletuen artean gainera ongi ikusia izango zara. Noski, (Esnal) bi eskaintzak antzekoak badira Errealean gertuko zara baina bata bestea baino eskaintza hobea bada eta profesionalki futboletik bizi nahi baduzu, eskaintza onena hartu behar duzu. Gertatzen dena, (De Luz) zera da futbolariaren bizitza laburra dela. Horregatik, futbolari profesional gehienak, ahalik eta diru gehien irabazten saiatzen dira. Entzun dugunaren arabera, eta honetan hirurak ados gaude, jokalaria jolalaria asko Athleticera joaten dira, tratu hobea jasotzen dutelako Lezaman. Kantera ere hobe zaintzen du Athleticek. Instalakuntzak ere askoz hobeak dira Lezamakoak Zubietakoak baino. Athletic, oso errotua dago Bizkaian, igandetan Anoeta eta San Mameseko giroa konparatuzera baino ez dago.



De Luz, Badiola eta Esnalek 3. mailatik 2.B-era salto handia dagoela diote

CHIARA

**Etzerako lentzeria
Oparitarako gaiak**

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18
Madaia plazoletan
20700 URRETXU

**ARLOPE
TABERNA**

Euskadi Enparantza, 5
☎ 72 43 19 ZUMARRAGA

Montajes e Instalaciones Electricas

HERCE
Electricistas. M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta, 4 ☎ 72 09 50
Tailerra: Mugitegi ☎ 72 42 66
☎ Mugikorra: 919 442 617
20700 URRETXU



HAR-GOR

Artisautza - Jazkiak - Opariak

Nekolalde,1 ☎ 72 56 58
20700URRETXU
(Gipuzkoa)

URki

**JAUNARTZETARAKO
OPARI BEREZIAK**

S. Esnaola, 3
☎ 72 42 98
ZUMARRAGA





Gurutze Zaldua Zumarragako Udaleko langilea

✓Zer izan nahi zenuen umetan?

Pintorea.

✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?

Epela.

✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Paseatu.

✓Ze opari hartuko zenuke gustura?

Nire bilobek egindako marrazkiak.

✓Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Pintore on bat.

✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?

Deskantsatzeko nahiago, baina beti ezin da.

✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?

Hankak.

✓Nora begiratzen diozu lehenik mutil bati?

Aurpegira eta ondoren, izakerari.

✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?

Lanpostuak eta errepideak.

✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?

Beloki mendia.

✓Zumarragan ezik non biziko zinateke gustura?

Donostian.

✓Zein da duzun ohiturarik txarrena?

Irikiegia naizela.

✓Bete gabeko amets bat?

Harreman publikoetan lan egitea edo turismoan.

✓Musika entzuteko, dantzatzeko, jotzeko ala kantatzeko?

Entzuteko.

✓Kantu bat.

Benito Lertxundiren edozein.

✓Zain egon ala besteak zure zain?

Zain egon.

✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?

Zintzotasuna.

✓Norengatik joango zinateke azken muturre-ra?

Nere familiarengatik.

✓Gaua ala eguna?

Eguna.

✓Lo egiteko zer?

Logurea eta liburu on bat.

✓Gustuko janari bat?

Arraultza frijituak pipar gorriekin.

✓Ura, ala...

Bazkariarekin ardo pixka bat.

✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun hori?

Margotu.

Urdaneta, 7 behea
☎ 72 37 09
20700 ZUMARRAGA



Plazaola, 1
☎ 73 16 42
20230 LEGAZPI

INGELESA ● FRANTSESA ● ALEMANA ● EUSKERA



-n hizkuntza guztiak ikasi ahal izango dituzu munduan zehar arazorik gabe ibili ahal izateko

PUBLIZITATEA

☎ 72 57 75



● Aspaldi ez bazaitut ikusi ere ez pentsa zutaz ahaztu naizenik.
ZORIONAK MARI JOSE!!!



● Zure bigarren urtebetetzean oso ondo igaro dezazun zure lehengusuen partez,
ZORIONAK LEIRE!!!



● Egun zoragarri bat igaro dezazun, Uxuen partetik,
ZORIONAK MABEL!!!



● Zure urtebetetzea dela eta OTAMOTZen bidez zoriondu nahi zaitut.
ZORIONAK IÑAKE!!!



● Aurpegi alai horrekin zure urtebetetzea ospatzera gonbidatuko didazula espero dut.
ZORIONAK JOSE ANTONIO!



● **Aupi Abasolo**, nolatan hi beti solo? Korbata eta guzti itxura dotorea duzu eta berehala agertuko da neskaren bat. Bitartean, koadrilaren partez zorionak!!!



● Euskara asko ikasten ari zara. Segi horrela, **Inaki animo!** Eta urtebetetzean zure emazte eta semeen aldetik har ezazu musu handi-handi bat.



● **Inaki**, pentsa futbola ez dela garrantzitsuena. Gehiago saiatu behar duzu ikasketetan. Halere, zure urtebetetzean zure guraso eta anaiaren partez **ZORIONAK!**



● **Zorionak** txirindulari! **Aritz**, ea giro jatorrean igarotzen duzun maiatzak 22ko eguna famili eta lagunartean.



● Zorionak Rafael Txapela buruan eta ibili munduan. Hi, noizean behin jaitsi adi baseritik kalera, besterik ez bada, koadrilak zoriontzeko.



● **Zorionak Maria Angeles!!!** Lan-kidea izan eta ez zoriondu! nola baina? Ixilik zeneukan baina... A, ja, jaa! Zer sentitzen da 20 urte betetzean? 20?




● **Zorionak Aitor!!** Madalena, urdaiazpiko eta panzeta piskat janez ospatu beharra zagok. Autobusa noizko?

OINETAKOAK
OSAGARRIAK
Doña Maximina
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 44 82

☎ 72 42 55
Legazpi, 14
ZUMARRAGA
ecu
☎ 43 19 72
Getaria, 18
DONOSTIA

IKER
SUKALDE ERAKUSKETA
FAGOR
Udala Enparantza, z/g
Tel.: 943 / 79 00 43
20500 ARRASATE
Ipeñarrieta, 5
Tel.: 943 / 72 50 75
20700 URRETXU

Etorkizun euskaldun bat izan dezagun atzera pausurik ez!



Euskara hogei
mendetan zehar.

HERRI BATASUNA

